

Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa 2016 Certamen Navarro de la Canción Vasca 2016

SARRERA

Badira une bereziak gogora ekartzen dizkiguten hainbat abesti; doinu eta hitzen arteko konbinazio bikainaren eraginez bihotza ukitzen diguten zenbait kantu. Badira barruan taupadaka dugun sentimendu edo aldarri bat besteekin partekatzeko bide ematen diguten koplak; eta, zer arraio, ia konturatu gabe dantzan jartzen gaituzten hamaika doinu.

Euskal Kantu Txapelketan euskarazko kantuen sorta polit batez gozatzeko aukera izaten genuen, zuzeneko emanaldi bikainetan herritar arruntek abestuta. Krisialdiarekin, alabaina, desagertu egin zen hura antolatzeke diru-laguntza, eta horrenbestez, sei urte baino gehiago igaro dira dira azken edizioa egin zenetik.

Aurten, Txapelketa berrabiarazteko lehen bultzada ematea erabaki dugu eta, Nafarroako Kantuzale Elkartearen eskutik, 2016ko Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa antolatzeari ekin diogu, haren falta baitugu hartan parte hartzen genuenok; gozaten genuelako besteen ekarpenekin; giro ezin jator eta atseginagoan igarotzen genituelako negu hotzaren atariko pare bat arrats; etxezuloatik atera eta euskal herri-kulturaren arnasguneetan belarri-gogo-bihotzak lepo betetzen genituelako; eta azkenik baina ez azken, jarraipen-eskean eta ate-joka ditugulako Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdietako parte-hartzaileak. Ez dadila haria eten!

INTRODUCCIÓN

Hay canciones que nos traen a la mente momentos especiales; canciones que por su combinación de sonidos y letras nos tocan el corazón. La canción es también una forma de expresar y compartir con los demás aquellos sentimientos o reivindicaciones que guardamos en el interior; y admitámoslo, es inevitable moverse al ritmo de alguna de ellas.

En los Certámenes de la Canción Vasca o Euskal Kantu Txapelketa teníamos la oportunidad de disfrutar de una gran selección de canciones cantadas en euskera, interpretadas en directo por gente de a pié. No obstante, con la crisis económica se eliminaron las subvenciones que hacían posible la organización de este tipo de eventos, por lo que han pasado ya más de seis años desde que tuviera lugar la última edición del certamen.

Este año, hemos decidido retomar esta preciosa iniciativa y, de la mano de Nafarroako Kantuzale Elkartea, organizar el Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa 2016, y es que quienes participábamos en él lo echamos de menos, porque disfrutábamos con las aportaciones del resto de compañeras y compañeros, porque transcurriamos en un ambiente cálido y agradable varias veladas a las puertas del gélido invierno; porque nos hacía salir de casa y llenar los oídos, el alma y el corazón de buenas vibraciones y aire euskaldun; y por último, pero no menos importante, porque las y los jóvenes que participan y han participado en la versión juvenil de éste certamen están pidiendo su continuación a gritos. ¡Que el ritmo no pare!

TXAPELKETAREN EZAUGARRIAK

Txapelketa irekia da; abestiek euskaraz behar dute, horixe baldintza bakarra. 16 urtetik gorako edonork har dezake parte, banaka, binaka edo taldean (zuzendaririk gabe). Euskal kantu zaharrak, gaur egungoak zein norberak sortutakoak abes daitezke, *a cappella*, musika-tresnez zuzenean lagunduta, edo audioren bat atzeko soinu bezala erabiliz.

Dena ondo bidez, 2016ko azaroan izango da Txapelketa. Emanaldiak larunbat arratsaldez edo, asko jota, igande goizez izango dira. Bizpahiru saio izango ditu Txapelketak, ekimenak zer harrera duen. Lehengo bi emanaldietako zenbait abeslarik hirugarren saioan edo finalean hartuko dute parte.

Jaialdi hauen bitartez, erakundeek haien aletxoak jarriko dute euskal kultura sustatzearen alde, Nafarroako txoko eta bazter guztietako kantuzaleak batuz eta elkar ezagutaraziz. Horretaz gainera, herritarrei esku-eskura jarriko diete ikuskizun eder batez gozatzeko aukera. Entzuleek, haien aldetik, euskal kantuez gozatzeko dute; eta parte-hartzaileek aitzakia ederra izango dute aspaldiko lagunekin, senitartekoekin edo lagun egin berriekin elkartzeko, entseatzeko eta beren sormenak oholtzan jendarteratuz arratsalde-pasa ederra egiteko.

Esan gabe doa era honetako jaialdietan parte hartu izan dutela entzute handiko zenbait abeslarik, hala nola Berri Txarrak taldeak, Benito Lertxundik, Mikel Urdangarinek, Eñaut Elorrietak, Zuriñe Hidakok, Lain taldeak, eta lagunartea loriazko nahikoa plaza duten zenbait harribitxik.

CARACTERÍSTICAS DEL CERTAMEN

Se trata de un certamen abierto en el que la única condición es que las canciones sean cantadas en euskera. Puede participar cualquier persona mayor de 16 años, en las categorías de solista, dúo o grupo (en éste último caso sin directora o director); en la modalidad de canción tradicional vasca, moderna o de creación propia; bien sea *a cappella*, con acompañamiento musical en directo, o con una base de fondo.

El certamen se celebrará en noviembre de 2016. Para facilitar la asistencia de quien quiera participar, las sesiones tendrán lugar en sábado por la tarde o domingo por la mañana. Constará de dos sesiones y una gala final en la que se dará cita una selección de todos ellos, según la acogida que tenga la iniciativa.

Mediante este certamen, las instituciones y organismos podrán contribuir a fomentar la cultura vasca mediante la canción, podrán propiciar un punto de encuentro para aficionadas y aficionados esta modalidad de todo Navarra, y ofrecer a los ciudadanos y ciudadanas un espectáculo de calidad. Quienes asistan, disfrutarán de canciones interpretadas en directo en euskera, y aquellas personas que participen tendrán una oportunidad inmejorable para encontrarse, ensayar y compartir sus creaciones sobre un escenario.

Cabe señalar que por este tipo de certámenes han pasado artistas de la talla de Berri Txarrak, Benito Lertxundi, Mikel Urdangarin, Eñaut Elorrieta, Zuriñe Hidalgo, el grupo Lain y otras joyas que prefieren compartir su arte en *petit comité*.

ZABALTZE-ESKAERA

Gure ekimena zabal dezazuela eskatzen dizuegu. Orain zabalduz gero, jendeak nahikoa denbora izango baitu udazkenerako antolatzeko, entseatzeko eta kantuak prestatzeko. Ezinbestekoa da deialdia orain egitea.

Jakin beharrekoak:

Txapelketari buruz: 2016ko azaroan izango da; 16 urtetik gorako edonork har dezake parte, banaka, binaka edo taldean (zuzendaririk gabe); Euskal kantu zaharrak, gaur egungoak zein norberak sortutakoak abes daitezke, musika-tresnez zuzenean lagunduta, edo audioren bat atzeko soinu bezala erabiliz.

Izen emateari buruz: parte hartu nahi dutenek nafarroakoeuskalkantu@gmail.com helbidean eman dezakete izena (harremanetarako pertsona, Ainhoa Hualde).

Facebooken ere kontua sortu dugu, parte hartzaileen eta kolaboratzaileen are eskurago egoteko.

Besterik gabe,
Eskerrik asko aurrez,

Ainhoa Hualde

SOLICITUD DE DIFUSIÓN

Os pedimos que difundáis nuestra iniciativa, ya que si la damos a conocer ahora, quienes deseen participar dispondrán del tiempo suficiente para organizarse, ensayar y preparar las canciones. Es de vital importancia hacer ahora un primer llamamiento.

Reseñas a tener en cuenta:

Sobre el certamen: tendrá lugar en noviembre de 2016; puede participar cualquier persona mayor de 16 años, en las categorías de solista, dúo o grupo (en éste último caso sin directora o director); en la modalidad de canción tradicional vasca, moderna o de creación propia; bien sea con acompañamiento musical en directo, o con una base de fondo.

Sobre la inscripción: quienes deseen inscribirse pueden hacerlo ya en la dirección de correo electrónico nafarroakoeuskalkantu@gmail.com (persona de contacto: Ainhoa Hualde).

Hemos creado una cuenta en Facebook, para estar más a mano de los y las participantes y colaboradores/as.

Recibid un cordial saludo y un agradecimiento de antemano

Ainhoa Hualde